



PRENTSA OHARRA: 2024.09.24

## **Etxepare Euskal Institutuak Hizkuntzen Europako Egunaren ospakizunekin bat egingo du Bruselan, Lisboan eta New Yorken egingo diren kultur ekitaldiekin**

- Miren Agur Meabek errezitaldi batean hartuko du parte Lisboan, eta Harkaitz Cano Bruselako Transpoesie jaialdian izango da**
- Euskara ikasteko hastapen klaseak eskainiko dira New Yorkeko Queens Night Market-en**

**Irailaren 26an Hizkuntzen Europako Eguna ospatzen da, Europan dagoen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bere nortasunaren funtsezko elementu gisa balioesteko eta sustatzeko helburuarekin.** Etxepare Euskal Institutuak bat egiten du asmo horrekin, eta **euskara eta euskal kultura kontinente zaharreko beste hizkuntza batzuekin batera ikusarazteko** hainbat jarduera sustatzen ditu.

Irailaren 25ean, Hizkuntzen Europako Egunaren bezperan, **Lisboako Instituto Cervantes-en egoitzan errezitaldi poetiko eleaniztuna egingo da Iberiar Penintsulako hizkuntzak ordezkatzeko dituzten idazleen eskutik.** Ekitaldia Instituto Cervantes-ek antolatu du, Portugalgo Instituto Camões, Consello da Cultura Gallega, Institut Ramon Llull eta Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean. **Irene Larraza, Etxepareko zuzendaria, Lisboan izango da, Miren Agur Meaberekin batera.** Espainiako Poesia Saria eta hiru bider Euskadi Saria eskuratu dituen euskal idazleaz gain, beste lau egilek hartuko dute parte ekitaldian: Miriam Reyes Carcamo, gaztelaniaz; Golgona Anghel, portugesez; Oriana Méndez galegoz; Miriam Cano Manzano katalanez, eta Esther Prieto Alonso, asturieraz.



Bestalde, irailaren 26tik 28ra bitartean, **poesiak Bruselako espazio publikoa eta garraio-sarea hartuko ditu. Hogei bat egileren poema originalak irakurri ahal izango dira, bakoitza bere jatorrizko hizkuntzan**, eta frantsesera eta nederlanderara itzulita. **Olerki horien artean euskarazko bat egongo da, Harkaitz Cano idazle ezagunak idatzia**. Cano da, hain zuzen, Transpoesie-ra gonbidatutako idazleetako bat.

Transpoesie 2011tik EUNICek (European Union National Institutes for Culture), harreman kulturaletan diharduten erakundeen sare europarrak, antolatzen duen jaialdia da. Etxepare Euskal Institutua EUNICen Brusela eta New Yorkeko klusterretako kide-elkartua da.

Hizkuntzen Europako Egunarekin bat eginez, jaialdiak hainbat ekitaldi antolatzen ditu Belgikako hiriburuko metropoli eremu osoan zehar, hala nola irakurketak, mahai-inguruak, eztabaidak eta idazketa saio publikoak. Harkaitz Cano izango da inaugurazio-ekitaldira gonbidatutako egileetako bat, Jardin des Citoyensen, eta Luxenburgoko enbaxadan egingo den "Surrealism de Lux" ekitaldian ere hartuko du parte. Europako hizkuntza-aniztasuna azpimarratu nahi duen jaialdi honek mugimendu surrealitari keinua egingo dio 14. edizio honetan, hain zuzen ere André Breton artistak argitaratutako manifestu ospetsuak 100 urte bete dituenean.

Azkenik, euskarak eta euskal kulturak lekua izango dute New Yorken, irailaren 28an Queenseko gaueko azoka ezagunean egingo den ekitaldi berezian. EUNIC New York-eko kide diren erakundeek hainbat jarduera ludiko eta kultural antolatu dituzte Europako ondare linguistiko aberatsa erakusteko eta Hizkuntzen Europako Eguna ospatzeko: dastatze gastronomikoak, kontzertuak, dantza, hizkuntza klaseak, etab. Programazio horren barruan, Etxepare Euskal Institutuaren eta Estatu Batuetako Euskadiko Ordezkaritzaren arteko lankidetzari esker, Beñat Urrutia dantzari eta ikertzaileak euskal dantza emanaldia eskainiko du, eta bertarutzen direnek euskara ikasteko hastapen klaseak hartzeko aukera izango dute.



**ETXEPARE  
EUSKAL  
INSTITUTUA**

## **Etxepare Euskal Institutua**

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeke egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

### **Info +**

Komunikazioa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)

[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)